

Arrasate

P R E S S

1997ko
Azaroak 21
385. zenb.

IRITZIA
JUAN LUIS
ESPERESATE

KULTURA
FELI
ARENAZA

KIROLAK
UDA-MONDRA
DERBIA

IKUSPEGIA
JOXERRA
AGIRREURRETA




GARIBAI

EZEZAGUN OSPETSU HORI

Kabía

A
L
T
Z
A
R
i
A
K



D
E
K
O
R
A
Z
i
O
A

Azaroaren 29an, zapatu arratsaldean,
ateak zabalduko ditugu zu txunditzeko. Zatoz!

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 79 27 70

Estraperlue

Saso baten, ez oso aspaldi gainera, asko zien gure lurretan arbitrio etxietan zergak ordaindu barik mendixen gabez estraperluen ebitzen lagunek. Batzuetan kafie, hurrengo olixue eta gehixen-tan ardaue. Errioxatik ekarritako saragi gozuek Gatzako Inñurritte baserriko lurretan egoten zien gordeta.



Joxerra Agirreurreta

Baeukien bai orduko gizon kontrabando zaliek odol, barri eta izaerie berezixe. Eskola bakuek izanarren, berezkie eukien buru-argittasune, edozertarako ikusmen zorrotza eta sal-erosketarako sena eta maltzurkerixie. Mundu danakin errezuluetan bizi zien eta konfiantzako lagunak gutxi eukitten euen: bi, hirü kontrabandista euren lagunak zintzuenak. Kontrabandue euren bizimodue atarateko modue zan eta sasoiak lagunketan eutzien bittertien, hor ibiltzen zien estutasun gogorrak pasauaz mendiko

“Eskolie sortzeko euskerie ezinbesteko baldintzie bada komunikabidietan zeatik ezta ezarri biher eskoletarako eskatzen dogun irizpidie?”

bidetxur eta zirrikittuetan.

Oso gustoko kontuek badittut be, enaz ni etorri orrialde honeittara lenauko estraperluaz ezer estera. Nik, benetan, gure herriko egunkari-xetako kronista lokalek gure herriko hizkuntzari egitten dutzien estraperloaz berba egin gure dot. Ze, askok oso berba gogorak jaurtiko dittutala esango dustie, baine, beti etxoitten egoten be kantzau naz. Sasoie da esateko estraper-

luen dabilen jente horri **ARRASATEKO JENTIEN ERDIXEK AIKETAN DAUE-LA EUSKERIE.**

Dabixen berbetie beti kasteilanue da. Zela demontre entendirü erain biher dutzau beste gauza bat gureko geukela ikusi. Ze, esango dutezue AEDK nik baino finau eta modu egokixauen eitten dittuela holako denuntziak. Ba, arrazoi dozue baine eztatzie kasu zipitzik be egitten; euskeraz bizi gure dogunen pazientziak aspaldi hartu auen gaine eta zer

gehixau egin geike ba?

Horretxeatik herrixetako kronikie idazten dauenak, Extra dala, Bertan dala eta enparaukuek diela, estraperlue egitten dutzie euskeriei eta hola sentiruten dot eta holaxe esango dot. Ze, egixe da euskerien inguruen, Arrasaten badauela “onarpen zabala”, “kontsentsua” esaten jakon egoerie; eta askotan, adostasun hori ez apurketako, mingaine isilik euki dogule; baine, ordue da gauzak gordin-gordinien esateko. Komunikabidiek herriko hizkuntz erreallitatie erantzun biher dutzie. Hori eskatzen dot. Besterik ez. Onartuko geuke Arrasaten kastellano hutsien zabalduko litzaken eskolarik? Ezezkuen nago. Eskolie sortzeko euskerie ezinbesteko baldintzie bada komunikabidietan zeatik ezta ezarri biher eskoletarako eskatzen dogun irizpidie?

Lehengo baten Pressen idazten dauen beste batek esaten eusten moduen, “Guk etxaukau eskribientiek izeteko tankeraik, guk Arrasate Estresen idazten bajuau eztko idazlien arimie daukoulako; gu, euskerien aldeko jarrera erakutsi gure doulako gazak hemen”. Arrazoi osue dauke gure lagun honek, ze, istorixa hontan bagabitz euskaraz egitten dalako da, erderaz izan balitz ez gitzen hemen izengo. ■

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Maria Agirre. **Kazetariak:** Ixaro Zubillaga, Marian Porcel, Pabito Montero. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Disenua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASÁ taldea, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Urizarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa ardura-duna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88 **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.

Arrasateko Udalerriaren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

385. zenbaki honetan

1997ko azaroaren 21ean

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	11/13	Kulturaren txokoa ..	24/25
Irakurlea idazle	6	Txutxumtxuak.....	14/15	Azoka plaza	26/27
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Denborapasak	28
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan.....	20/22	Ikusi eta entzun	29
Astearen errepassoa....	10	30 galderatan	23	Fotozaharra	30

Ikuspegia

Joxerra Agirreurreta..... 3

Euren ikuspegitik

Juan Luis Esperesate..... 8

Kirolak jokoan

Jose Luis Ugalde..... 16

Kulturaren txokoa

Feli Arenaza..... 22

Asteko gaia

Esteban De Garibai..... 17/19

Bi urte barru Garibai hil zeneko 400. urteurrena ospatuko da, eta Udalak bere memoriak argitaratzeko asmoa dauka.



21

ostirala

■ ZINEA

Full monty. Alai zineman 7etan eta 10etan.

23

igandea

■ ZINEA

Full monty. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

25

asteartea

■ ZINEA

Full monty. Alai zinema 7etan eta 9.30etan.

27

osteguna

■ ZINE KLUBA

Izarretako gizona. Zuzendaria: Giuseppe Tornatore. Amaia antzokian, gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pta. eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

22

larunbata

■ ZINEA

Full monty. Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ IGERILEKUA ITXITA

Arrasate igeri taldeak igeri txapelketa antolatu duenez, egun osoan igerilekua itxita egongo da.

■ BAZKARIA
ALKARTETXEAN

Eusko Alkartasunak antolatuta, ardi eta buzkantza bazkaria Alkartetxean, eguerdiko 2.30etan.

■ MARI ERRAUSKIN
OPERA

Juan Arzamendik konposatutako *Mari Errauskin opera* Amaia antzokian, arratsaldeko 7.30etan. Antolotzailea: San Viator ikastola.

■ HAUR FOLKLORE
MINTEGIA

Gaia: *Belarritik ahora*. Hizlaria: J.M Olaizola "Txiliku". Haur liburutegian, goizeko 10etatik ordubata arte.

■ MARI ERRAUSKIN
OPERA

Juan Arzamendik konposatutako *Mari Errauskin opera* Amaia antzokian, arratsaldeko 7.30etan. Antolotzailea: San Viator ikastola.

24

astelehena

■ ZINEA

Full monty. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ ARIZMENDI
TOPAKETAK

Gaia: *Adimena, zorientasuna eta baloreak*. Hizlaria: Pedro Hernandez, ICEko zuzendaria. Amaia antzokian, arratsaldeko 18.45etan. Giza-bide Fundazioak antolatuta.

■ EROSKIKO
JARDUNALDIAK

Gaia: *Arrainak: giza elikaduraren oinarriak. Zer ekartzen digute? Arrain zuriak eta urdinak, mitoak eta egiak*. Hizlariak: Mikel Marzo eta Roberto Garcia. Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Eroskik antolatuta.

26

asteazkena

■ INSTITUTOKO BILERA
OROKORRA

Arrasateko Institutoko guraso elkartearen bilera orokorra Institutoko areto nagusian. Lehen deialdia arratsaldeko 6etan, eta bigarrena 6.30etan.

■ ARIZMENDI
TOPAKETAK

Gaia: *On Jose Mariarekin solasean*. Hizlaria: Jon Sarasua, bertsolaria eta kazetaria. Amaia antzokian arratsaldeko 18.45etan. Gizabide Fundazioak antolatuta.

■ EROSKIKO
JARDUNALDIAK

Gaia: *Mahai on baten osagarriak*. Hizlariak: Mikel Marzo eta Roberto Garcia. Monterronen, arratsaldeko 4.30etan. Eroskik antolatuta.

■ ARIZMENDI TOPAKETA

Gaia: *Hazkuntza, kooperatiben garapen enpresariaren oinarri*. Hizlaria: Antonio Cancelo, MCCko presidentea. Amaia antzokian, arratsaldeko 18.45etan.

■ EROSKIKO
JARDUNALDIAK

Gaia: *Gabonetako jatordu astunen ondorioak, eta horiek nola arindu*. Hizlariak: Julian Bereciartua, mediku zirujaua. Monterronen, arratsaldeko 4.30etan. Eroskik antolatuta.

■ HIESARI BURUZKO
MAHAINGURUA

Gaia: *Gib/Hiesarekin bizigaren gizakien izaera*. Hizlariak: Jabi Madariaga eta Josu Imanol Unanue. Arratsaldeko 7etan Monterronen.

■ **FELI ARENAZAREN PINTURA ERAKUSKETA**

Abenduaren 8a arte Feli Arenazaren pintura erakusketa, Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegune-tan 12etatik 2ak arte, eta 6etatik 8ak arte.

■ **KEPA URIBARRENEN TAILA ERAKUSKETA EIBARREN**

Kepa Urribarren arrasatearrak taila erakus-keta jarri du Eibarko Arrate kultur elkartean. Erakuske-ta domeka arte egongo da zabalik; larunbata eta igandean, 12etatik 2ak arte, eta 7etatik 9ak arte.

■ **BESAIDEREN MENDI IRTEERA**

Pirineoetako Garmo Negro eta Anayet-era mendi irteera antolatu du Besaidek, abenduaren 6, 7 eta 8rako. Abenduaren 6an, goizeko 5etan, irtengo da autobusa. Izenematea azaroaren 25ean, 26an eta 27an, arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte, Besaideren egoitzan.

■ **MENDI ESKI IKASTAROA**

Besaide mendizale elkarteak mendi eski ikastaroa antolatu dua-bendsuaren 12 eta 13rako. Klaseak 12an, arratsalde-ko 7etan Oñatiko kultur etxean emango dira eta 13an goizeko 10etan hasita Debako ondartzan.

Bereziki mendi-eskiatzailei zuzenduta. Prezioa:

Besaideko bazkide langa-betuendako eta ikasleen-tzat 500 pta. Besteendako 1.000 pta. Federatuek 1.500 pta. ordaindu beharko dute eta federatu gabeek 2.500 pta. Izenematea abenduaren 2an eta 3an, arratsaldeko 7.30eta-

tik 8.30ak arte, Besaideren egoitzan

■ **JUAN IGNACIO MONTIANOREN LIBURUA-REN AURKEZPENA**

Azaroaren 28an, ostiralean, Juan Ignacio Montianok *Zaino* liburuaren aurkezpena egingo du Monterronen, arratsaldeko 7etan.



■ **"HIESA IRUDITAN" KARTEL ERAKUSKETA IKUSGAI MONTERRONEN**

Azaroaren 24tik abenduaren bata arte, "Hiesa iruditán" gaiari buruzko kartelen erakusketa Monterronen. Ordutegia: 6etatik 8etara. Larunbatetan eta jaiegune-tan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte. Antolatzaileak: Hies Ekimena, Txo-Hiesa, Nahai eta Errotatxo.



ESKER ONAK ARRASATE PRESS-EN

HILDAKOEN BERRI EMATEKO EDO ESKER ONETARAKO ARRASATE PRESS DUZU TOKIRIK APROPOSENA ETA MERKEENA.

INFORMAZIORAKO: TEL. 77 08 15



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena

Aurrezkoa Epeka




Aurrezkiaren Fruituak 97ko Udazken-Negua




Hormako
erlojua
egurrezko
markoarekin.

175.000 pezeta **7 hilerako**
275.000 pta. 4 hilerako



Edalontzidun
(1,5 l) Solac
irabiagailua.


175.000 pezeta **12 hilerako**
275.000 pta. 7 hilerako



Fagor lapiko azkarra
(6 litro)
Gasa, Elektr., Vitro., Indukzioa.

275.000 pezeta **12 hilerako**
450.000 pta. 7 hilerako

Eskaintza bateratua
525.000 pta. 12 hilerako



Zatoz Euskadiko Kutxara. Berehala jasoko duzu zure aurrezkiaren fruitua. Eta gogoan izan, eragiketa formalizatu eta gero, aukeratutako produktua gustatzen ez bazaizu, beste bat hartu edo eragiketa deusezteko aukera duzula.

Izakinak bukatu arteko eskaintza.


Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, goizez nahiz arratsalde. Edo 901-333 444 telefono zenbakira deitu, gaueko 10ak arte.

Autopistak erabiltzen dituzu?



Casilda Rodriguez
(44 urte)
Langilea

Bai, erabiltzen dut, eta ordaindu behar izatea oso txarto pentsetan zait. Gainera oso garestiak dira, debaldekoak izan beharko lukete.



Eugenio Goitia
(46 urte)
Langilea

Askotan bai, Bilbora eta Donostiara joateko. Prezioak garesti samarrak dira, baina mantenimenduak bere kostua dauka. Dena dela, merkeagoak izan beharko lukete, Europako garestienak hemen ditugu eta.



Ascensión Iñiguez
(49 urte)
Etxekoandrea

Presaka banoa erabiltzen ditut. Bilbokoari oso garestia irizten diot. Doan izango balitz, orduan bai ondo!



Jose manuel Eguzkiza
(33 urte)
Langabetua

Ez dut kotxerik baina bada-
kit tarifak zelakoak diren.
Turismo bakoitzaren ezaugar-
rien arabekoak dira, beraz,
prezinoa ondo dagoela uste dut.



Santi Garcia
(60 urte)
Jubilatua

Presa handia dudanean
bakarrik joaten naiz autopis-
tatik. Garesti samarrak dira
prezioak, ezta?



Maria Victoria Lopez
(34 urte)
Etxekoandrea

Oso garestiak dira. Debal-
de izan beharko lukete, edo gu-
txienez, merkeagoak.



Ana Zubillaga
(30 urte)
Langilea

Presakin banoa bai, baina
normalean ez ditut erabiltzen.
Ez dut sistema ondo ulertzen
baina debalde ez bada ere,
merkeagoak jarri beharko lituz-
ketela uste dut.



Francisco Valor
(57 urte)
Langilea

Nik gutxi erabiltzen dut,
baina bidea askoz erer eroso-
agoa da.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A
Gerriko edo bizkarreko minez zabitza?
Lunbago eta ziatikarako faja elastikoak ditugu zuretako.
Zugan pentsatuz laguntzeko prest!
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

USTEAK USTE

6an Eroskira?

Intsumisioari buruz idatzi gura nuen baina ondokoak gai bera jorratu duenez, beste bat aukeratu behar. Hori bai, nik ere jakin gura dut Arrasateko Udalak zelan lagundu nahi dien intsumisoei. Armadari zerrendak ematea, soldadutzara joan nahi dutenen onerako bakarrik da. Intsumisoei laguntzeko, zerrendatik euren izenak kendu beharko dira, ezta? Hori egiteko asmoa du Udalak?

Ez naiz gehiago luzatuko eta, beste barik, Eroskiri helduko diot. Zelako zalaparta sortu den abenduaren 6an hiperra zabalduko dela eta! Zer bait erosteko beharra edukiko gero, ez dakit zer egingo dudana, benetan. Sindikalista batek zioen, supermerkatua jaiegunetan ere zabalduz, jendea kontsumitzera bultzatzen dugula. Ez nator bat; dendak itxita egon arren antzera edo gehiago kontsumitzen dugu.

Ika-mika horretan, hala ere, faltan botatzen dudana langileen iritzia da. Sindikatuek eman dute eurena eta Eroskiko zuzendaritzak ere bai. Baina batez ere langileen eskubideez egin da berba, eta nik jakin nahi nuke ea langileek euren eskubideak zapalduta ikusten dituzten.

Maria Agirre



Udala eta intsumisioa

Juan Luis Esperesate

Guri ere, antimilitarista garenoi, begiak malkoz betetzen zaizkigu egunkarietan "exceso de cupo" delakoagatik mutil batek soldadutzara joan gura duela eta bere gurari hori ezin dela bete irakurtzen dugunean. Malkoz betetzen zaizkigu begiak, bai, baina barrez egitearen puruz. Jakina denez, bizitzan umore ona eduki behar da, baina kontuz, gauza bat umore ona edukitzea da eta beste bat adarra jotzea. Datorren urtean Udalak armadarekin kolaboratuko du. Loitiren hitzetan, "gazte guztiek aukera berdinak izan behar dituzte, soldadutzara joan gura dutenek nahiz intsumisioaren bidea hartu nahi

dutenek. Denei lagundu behar zaie".

Gustatuko litzaiguke jakitea zeri buruz ari den hitz egiten, zein eskubideri buruz. Derrigorrezko zerbitzu militarra -izenak ondo adierazten du- ez da eskubide bat. Beste aldetik, intsumisioaren bideak eskubideen murrizketaekar dezake. Argi dago armadarekin kolaboratuta ez direla gazteen eskubideak zaintzen.

“ Intsumiso gehiago egonik zergatik ematen du gure Udalak atzerapauso bat? ”

Hau guztiagatik, eskubide hori baldin badugu, jakitea gura duguna zera da: zergatik apurtzen da bat-batean plenoan hartutako erabakia? Gero eta intsumiso gehiago dagoen garaiotan zergatik ematen du gure Udalak atzerapauso bat? Zergatik, gizarteak bide bat onartzen duenean, erakundeek kontrakoa egin edo bideratzen dute? Udala gobernatzaren duten alderdiek galdera hauek erantzun beharko lituzkete. Hala ere, seguruenik, bat baino gehiagok ezingo ditu erantzun kontraesanean jausi gabe.

Hau guztia alde batera, hemen ez da bukatzen adar jotzea. Badirudi Gipuzkoako hainbat elkarte ordeztu zerbitzu sozialarekin kolaboratzen hasiko dela. Seguruenik esango digute, gazte guztiek aukera hori eduki behar dutela, edo dohaineko langileak nahi dituztela. Argi eta garbi dago OZZek harreman oso estua dutela derrigorrezko zerbitzu militararekin.

Bukatzeke, pentsatzen bagenuen mobida hau bukatzeaz zegoela, jai daukagu azken berriak ikusi eta gero.

Juan Luis Esperesate
Antimilitarista

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82



MULTIOPTICAS

sei
hilabete tan

begi bistatik kenduko
diguzu

Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:

- MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
- Ordaintzeta 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batere errekaratu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB"
PROGRAMAKO
PUNTUAK



bi kutxatila

lentilekin
eta beste bi
soluzio bakarrarekin

15.000

pezetagatik
bakarrik



eta erloju bat opari

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 Juan Carlos Guerra, 1 J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 76 15 75 Tel. 79 29 95 Tel. 88 99 88
BERGARA ARRASATE ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 51 78 11
ERRETERIA



**Jaioberriendako osagarriak.
Haur eta gaztetxoek moda.**

Ferrerias, 34 • Tel.: 79 86 50 / Garibai, 6 • Tel.: 79 97 86



astea bi hitzetan

■ Garitaonandia Carabanchelen sartu dute

Joan den zapatuan epailearen aurrean deklaratu ondoren, epaileak Garitaonandiaren espetxeratze prebentiboa agindu zuen. Arrasatearrak ukatu egin zuen ETArekin inolako zerikusirik zuenik, baina epailea Entzutegi Nazionalan irekita dauden hainbat sumariotan oinarritu zen. Horien arabera, ETArekin ez zuten lotuta daude Mexikotik kanporatutako errefuxiatuak.

Arrasatearraren espetxeratzea dela eta, zapatu iluntzean manifestazioa egin zen herrian.

■ Istripuaren ondorioz arrasatearra larri dago

Domekan, goizaldeko 3:45etan, istripua gertatu zen Arrasatek Aretxabale-tarako bidean, Arbizelai

inguruan. Opel Vectra markako autoa errepidetik irten eta autoan zihoazen lau lagunek istripua izan zuten. Horietako bi arinki zauritu ziren, baina beste biek zauri larriagoak jasan zituzten. Larrien dagoena Andoni Garcia arrasatearra da. 24 urteko gaztea Gurutzetako ospitalean dago eta bere osasun egoera kritikoa da. Besteak, Haritz Errasti atxabale-tarrak, onera egin du eta arriskuz kanpo dago.

■ Kultura diputatua parrokiak ikustera etorri zen

San Juan Parrokiako obrak zelan doazen ikustera etorri zen astelehenean Koruko Aizarna, Diputazioko kultur diputatua. Barruko obrak nahiko aurreratuta daude, eta kanpoko obrei dagokienez, Iturriotzeko fatxada konpontzea falta da. Kultur

diputatutak begi onez ikusi zituen orain arte egindako lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiak 84 milioi emango ditu, 97. urtetik 99ra egingo diren obrendako.

■ 3.363 sinadura bildu Arrasaten

Sindikatu eta ordezkariak prentsaurrekoa eman zuten asteartean, gizarte eskubideen gutunaren alde zenbat sinadura bildu dituzten jakinarazteko. EAEn guztira 82.053 sinadura bildu dira, eta Arrasaten 3.363. Nahikoa sinadura bilduta, gaur bertan, ostiralean, eusko legebiltzarrean aztertu behar zen sindikatu guztien baiezkotza duen proposamena.

Pobreziarekin eta langabeziarekin bukatzeko, legebiltzarrean legea egin dezala lortu nahi du gizarte eskubideen gutunak.

“ Nik beti esan dut, eta oraindik mantentzen dut, euskaldunon jarrerak zerikusi handia duela, euskaldunok errua, erru handia, dugula.

Beraz, argitu behar dugu zenbateraino dugun gogoia benetan

euskara izan dadin bizitzeko hizkuntza edo erreibindikazio eta eskaparaterako bakarrik nahi dugun. Erreibindikazio edo eskaparaterako hizkuntza batek ez du etorkizunik. Edo bizitzeko nahi dugu edo ez du etorkizunik; nik hori garbi daukat. Eta bizitzeko balio behar badu, esparru guztietan balio behar du. Jendeak eta legeak egiten dituzten neurriak epaileek ere korrone horretan sartu beharra daukatela, ba dudarik gabe beste erremediorik ez da izango. (...)



INTSUMISIOAREN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Zapatuan soldadutzaren kontrako eta intsumisioaren aldeko manifestazioa egin zen herrian. Deba Garaiko gazte asko hurbildu zen manifestaldian parte hartzera, 400 antolatzaileen arabera. Manifestazioa giro alai egin zen eta beti ere erdiko kaleetatik zehar, Ertzaintzak debekatu egin zuten eta Garibaiko errepidetik joatea.

Lehenago irakurri nuen Arrasateko gazteen %70 euskara hitz egiteko gai direla baina %30k baino ez dutela egiten. Horrela ez goaz inora. Azkenean horrelako jarrerekin arrazoiak ematen zaie horrelako aldarrikapenak soilik politikoak direla diotenei. (...)

NEKANE SAN MIGUEL

Euskaldunon Egunkaria
1997ko azaroak 16

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa • Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritatea eta hizkuntza bereziera)

Logopedia • Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak,

enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABAETA

Diputaziotik dirurik ez, Monterron jauregian egin nahi diren obrendako

Monterron jauregian egin nahi diren aldaketetarako dirulaguntzarik ez duela emango jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gaur egun liburutegia eta beste zerbitzu batzuk eskaintzen dira aipatutako edifizioan, baina larrialdietarako eta elbarrituendako prestatu barik dago. Horregatik, udaletxeko hirigintza sailean jauregia egokitzeko proiektua egin dute. Zortzi milioi beharko lirateke proiektuan jasotzen dena egiteko. Batez ere, larrialdietarako irteerak egin, eta elbarrituak arazo barik sar daitezzen oztopoak kendu nahi dituzte. Horretaz gain, hemeroteke ere beheko solairuan jarri gura da.

Foru Aldundikoek ez dute



Larrialdietarako eta elbarrituendako prestatu nahi da Monterron jauregia.

argitu zergatik ez duten laguntzarik luzatuko. Arrazoia zein

den jakiteko, udaletxekoak Diputaziora joatekotan dira.

Normalean, Aldundiak inbertsioaren %30a ordaintzen du.

Maite Barreña Emakume saileko teknikaria

“Lana bilatu nahi duten emakumeei laguntza ematea da ikastaroaren helburua”

- Emakumearen sailak emakumeei zuzendutako ikastaroa antolatu du. Zein helbururekin?

- Gaur egun emakumeendako zailagoa da lana aurkitzea gizakumeendako baino. Lana bilatu nahi duten emakumeei laguntza ematea da ikastaroaren helburua. Lana zelan eta non bilatu azalduko zaie ikastaroan. Horretarako curriculum-ak egin eta elkarrizketak prestatzeaz gainera, informazioa non lortu dezaket esango diegu.

- Ikastaroa antolatzeko beharra zegoen?

- Bai, emakume asko hurbildu zaigu lana non eta zelan aurki dezaket galdezka. Horregatik, premia hauei formazioaren bidez erantzutea erabaki dugu.

- Noiz hasiko da?

- Urtarrilean hasi eta otsailan bukatuko da. Bi ikastaro desberdin daude: goi mailako formazioa dutenei zuzendua bata, eta bestea, formaziorik ez edo aspaldiko formazioa



Maite Barreña-

dutenei. Enpresa espezializatu batek emango du ikastaroa.

- Izenematea non egin daiteke?

- Udaletxean, emakumearen sailean. Uste dugu emakume askok nahi izango duela ikastaroan parte hartu, baina plaza-kopurua mugatuak izango da. Horregatik, hasieran elkarrizketa egingo zaie izenematea egiten dutenei, eta ondoren, ikastaroa zeintzuri komeni zaien aztertuko dugu.



Dagoeneko bost enpresa kokatu dira Enpresa Ekintzetarako Zentroan

Deba Garaiko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziak bultzatuta, uztailan inauguratu zen Enpresa Ekintzetarako Zentroa Zalditze auzoan. Zentroaren helburua, enpresa ekimen berriei laguntza eskaintzea da: prestakuntza espezializatua eskaini, bideragarritasun planak egiten lagundu eta lokalak prezio merkean uzten dira. Gehienetan, azken hau izaten da enpresendako arazo handiena.

Arrasateko Udalak 45 milioiko inbertsioa egin zuen eta gaur egun, industria eta zerbitzu jarduerak kokatzeko 16 modulo daude. Urrian heldu ziren zentrori lehenengo enpresak, eta ekimen industrialerako dauden hamaika moduloetatik, bi okupatuta daude dagoeneko. Lehengoz, Frenotec S.L. enpresa dago eta bestean, Oñaztu S.L. ezarriko da hurrengo egunotan.

Zentroaren bigarren solairuan, zerbitzu arloko enpresendako bost modulo daude eta hiru beteta daude: Extra egunkariak, Emun kooperatiba elkarteak eta Elkarkom Internetek hasi dute euren bide enpresariala. Koldo Azkoitiak Garapen ekonomikorako agentziako arduradunak azaldu bezala "Momentu honetan beste bi eskaera tramitatzen ari gara. Datorren urtearen bukaeran, modulo guztiak beteta egongo direla uste dugu".

EEZko moduloen erabilera ez da eskusiboa. Enpresek urtebeteko epea dute baina Mankomunitateko Gobernu Juntak hiru urtez luzatzeko ahalmena du. Lehengoz urtean, eta hilaftero, industria moduloek 100pta/m²ko



balio dute. Zerbitzu moduloek 120pta/m²ko. Bigarren urtean 300pta/m² industrialek eta 360pta/m²ko zerbitzukoek. Hirugarren urtean, moduloen

prezioa merkatuko prezioetara inguratuko da: 600pta/m²ko industrialek eta 720pta/m²ko zerbitzukoek.

Zentroak eskaintzen

Emun kooperatiba

Aste honetan kokatu dira Emun kooperatibakoak Enpresa Ekintzetarako Zentroan. Inguruko enpresak euskalduntze planak garatuko ditu Emun-ek. Zerbitzuetako modulo baten daude. Laupabost lagunek egiten dute lan enpresa berri honetan.

Elkarkom Internet

Elkarkom Internet-ek, aholkularitza eta internet zerbitzuak eskaintzen ditu. Bertan, hiru lagunek egiten dute lan.

Extra kazeta

Orain gutxi argia ikusi duen Deba Garaiko Kazetak, Enpresa Ekintzetarako Zentroan du erredakzioa. Extran bederatzi langilek dute kontratua, eta gainontzekoak kolaboratzaileak dira.

dituen instalazioen prezioak, berri, honakoak dira: telefonoa eta faxaren erabilera 10 pta pasoa, fotokopiagailuarena 5 pta. kopia bakoitzeko..

Polemika eta desadostasunak ekarriko ditu bake epailearen aukeraketak

Astelehenerako plenoa deitu du alkateak, eta beste gai batzuen artean, bake epailea aukeratu da. Bake epailea aukeratzeko prozesua orain dela gutxi hasi zen, lehen zegoenak kargua utzi ondoren.

Polemikaz inguratuta dator bake epailearen gaia. Izan ere, Udalak kargu hori betetzeko izenematea zabaldu zuenean, lau herritarrek azaldu zuten bake epaile izateko gogoia. Ondoren elkarriketak egin zitzaizkien lau lagun horiei, eta bi insumisoak direla eta, Udalak bi horiek atzera bota ditu. Geratzen ziren bietatik, berriz, emakume bat aukeratu dute bake epaile izateko. Baina kontua ez da hor bukatzen. Emakumeak euskaraz ez dakiela eta, gobernu taldean desadostasunak izan dira. Hala ere, bake epailea aukeratzeko baldintzetan ez da esaten derrigorrez euskaraz jakin behar duenik, eta horregatik, azken orduko ezustekorik ez badago, emakume



Astelehenean, goizeko 9etan, plenoa egingo da.

hori bake epaile izendatuko dute. Bake epailearen izendapena dela eta, astelehenero plenoan alderdi batzuk euren desadostasuna azalduko dutela uste da.

Bake epaileak egin behar duen lana ez da berezia. Jaiotzen, heriotzen edo ezkontzen

berri jasotzen dituzten agiriak sinatu, eta Udaletxean egiten diren ezkontzak aurrera eramatea da bake epailearen lana, besteak beste.

Behin plenoak aukeraketa egindakoa, Bilboko Auzitegi Gorenak izango du azken hitza.

Senideek mozioa aurkeztu dute

Pedro Guridi eta Jon Agirre presoek askapena eskatzeko, Senideek mozioa aurkeztu dute astelehenero plenoan. Bi preso arrasatearrek zigorraren hiru laurdenak beteta dituzte, eta Senideek, legea beteaz bi presoak aske utz ditzatela eskatzen dute. Senideen mozioan esaten denez "gaur egun bi preso arrasatear hauek kartzelan egoteak azalpen bakar bat dauka: euskal preso politikoek pertsona eta preso moduan dituzten eskubiak sistematikoki haustea". Era berean, plenoari eskatzen zaio gai honi buruzko jarraipena egitea.

Pedro Guridik 95eko azaroan bete zuen zigorraren 3/4. Jonek, berriz, iazko maiatzean.

EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Telefono: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETA

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

BAZTER-ALDE
J A T E T X E A

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58




ARDO EXTREMADURARRAREKIN OSPATU

zuten Corazon de Encinakoek euren zentroaren eguna. Orain dela bost urte zabaldu zuten Arrasateko extremadurarrak elkarte San Andresen eta urteurrena oroitzeko, La Serena eskualdeko ardo tipikoarekin egin zuten topa.

SUA!

Ez beldurtu, argazkikoak itxurak egiten ari dira eta. Sua pizten denean zer egin jakiteko, joan den asteen ikastaroa eman zuten Fagor Ederlanek Arrasaten duen plantan. Badakizue, praktikan teorian baino gehiago ikasten da.



MAKILATZERA!

Zirt-Zart ilepaindegiak hil honetan emango duen automakilaje ikastaroan parte hartuko du Sonia Garcia arrasatearrak. Sonia Arrasate Presseko zozketaren irabazlea izan da. Asko ikasi!





SUKALDARI DOTOREAK!

Maximo Uribesaigo eta Jose Luis Zarraoa lapiko artean ikustea ez da batere arraroa. Izan ere, euren prestatzen dute urtean birritan kuadrilakoek Leintze Elkartean egiten duten bazkaria. Nahikoa lan izaten dute urtero, 23 lagunendako bazkaria egiten. Joan den zapatuan dotore-dotore aurkitu genituen sukaldean, lagunek urteetako lana eskertzeko oparitu zieten sukaldari trajearekin. Patatak eta legatza saltsa berdean prestatu zituzten bi sukaldariek. Traje berriak zikindu barik gero!

GATZAGARRA ALA ARRASATEARRA?

Begira nor aurkitu genuen Leintz Gatzagako artisau ferian gatzagar peto-petoa bailitzan: Aintzane Gardoki kazetari arrasatearra. Aintzane Gatzagara joan zen bizitzera eta dirudienez, gustora parte hartzen du herriko saltsetan. Han ibili zen jo eta ke, ferixa ikustera joandako guztiei taloak saltzen.



JUBAR ATEAK. S.L.

- BURDINEZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzio
Offseta

Ferrerrias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

MECA GRUA ZERBITZUA

Grua tel.: 989 34 98 29
Renault Asisten.: 900 365 000

24 orduko zerbitzua 365 egunetan

MECA



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis



Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

**LOGELETAN
maisua**

**Zapatu
arratsaldeetan
zabalik!!**



**Eta orain
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.

Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

ARRASATE

Esteban de Garibai: 400 urte hil zela


Arrasateko Udaletxeko pleno aretoan ez dago Erregearen edo Lehendakariaren argazkirik, Garibai eta Biteriren erretratu handi bana baizik.

Bi urte barru, 1999an, Garibairen heriotzaren laugarren mendeurrena beteko da. Udaleko Kultura saila garaiz ibili da "Garibairen memoriak" liburuaren argitalpen komentatua prestatzeko. Efemeridea Garibairen garrantzi historikoa eza-gutzerara eman ezezik, garai-ko Arrasateko bizimoduari buruzko datu berriak jasotzeko ere aprobetxatu nahi da. Lehiaketa zabalik dago. Aurrean, bi urteko lana.

Esteban de Garibai eta Zamalloa 1533. urteko martxoaren 9an jaio zen Arrasaten, bere izena daraman etxean. Jauntxoaren seme, Oñatiko unibertsitate sortu berrian, Gasteizen, Kaltzadako Sto. Domingon eta Pariseko Sorbonan ikasi zuen.

Bere zaletasuna historia zen. Hainbesteko zaletasuna, gainontzeko ikasketagaiak albora utzi eta Espainia eta atzerriko historia ikasten murgildu zen buru-belarri. Ikasketak horietan oinarritu zuen bere ogibidea.

Bi urtez Arrasateko alkate eta Gipuzkoako Batzarkide izan ondoren, 1575. urtean Felipe IIa erregearekin hitz egin zuen lehenbiziko aldiz,



Protesto d'el Autor.

EN EL nombre de la sanctissima Trinidad, Padre, y Hijo, y Spiritu Sancto, tres personas, y vn solo Dios verdadero, y de la virgen Santa Maria, Señora nuestra, y d'el glorioso Apostol Sanctiago. patron de los reynos d' España. y ouidor, y defensor de los Catholicos

baina hamazazpi urte behar izan zituen Erregeren Kronista izendapena jasotzeko.

Erljiioari lotutako gizona izan zen. Loiolako Inazioren beatifikazio eta kanonizazioa lortzeko ekimena bultzatu zuen eta Arrasaten Jesusen Lagundiaren ikastetxe bat jasotzeko ahalegina egin zuen. Frantziskotarren komentua- ren eraikuntzan parte erabakiorra hartu eta bere bizitzan zehar eskuzabal lagundu zuen. Kuriositate bezala, esan daiteke birritan izan zela Teresa Jesusenarekin eta elkarrizketa haien oroitzapen onen leku- kotasuna idatzita utzi zuela.

BIDAIARI NEKAEZINA

Abiapuntua eta helmuga Arrasaten zuela, bere historia zale- tasunak bultzatuta, batetik bes- tera ibili zen luzaroan Gari- bai hango eta hemengo artxi- bategiak arakatzen. Historiari- lari lanerako informazio bila bidaia ugari egin zuen Gazte- la, Kantauri aldean, Andaluzia eta Portugalen zehar, eta bi urteko bidaia luze bat Frantzia eta Flandrian barrena.

Ia etengabeko bidaietara- ko zaletasunak harrituta, bere garaikideek bi esamolde sor- tu zituzten: "Judutar erratua", halaxe esan ohi zioten berari, eta "Garibairen arima bezala ibili", burua ez batean eta ez bestean ez duenari esateko erabilia.

Bere historia jasotzen duten liburuek diotenez, iker- keta eta bilketa garai haietan egunsentian jeiki ohi zen, egun osoa etxean ikasten eta idaz- ten eman (San Juan parroki- ara meza entzutera joaten zene- an salbu) eta gauerdia jota ohe- ratzen zen, liburuak eta idaz- teko lumak eskura utzita, gau- zez bururatzen zitzaizkio- nak apuntatu ahal izateko.

Bere bidaiarik esangurat- suena Flandriara egindakoa izan zen. Bidaiaren helburu nagusia Anberesen bere obra

nagusia tajutzea zen: "Los quatreinta libros del Compendio Historial de las chronicas y universal historia de todos los reynos de España", Espainiako historia jaso zuen lehenbiziko liburua. Baina bere bidaian ez zuen hori bakarrik egin, Frantzia eta Flandriako hiri askotako art- xiboak arakatu eta informa- zio berria lortzeko ere aprobe- txatu zuen.

COMPENDIO HISTORIAL


1545. urtean inprenta asma- tu berri zuen Guttenberge- k, eta 25 urte geroago Espainia osoan zehar jasotako datuei liburu itxura eman nahi izan zien Garibaik. Gipuzkoako Batzarrek lan hura egiteko laguntza ukatu egin zioten. Ez zuen ordea Garibaik atzera egin; bere diruz eta bere kabuz, Anberesera abiatu eta Planti- no izena zuen garaiko "inpre- ta gizonen printzea"rekin egin zuen lan, inoiz baino gogo- rrago. Hamaika hilabetetan, ordura arte denbora laburre- an inoiz egindako tiradarik handiena kaleratzea lortu zuen. 32 urte zituen Garibaik orduan.

Itzulerako bidaia nahikoa aldrebesa izan zen. Gerra giro- an, erasotu eta lapurtu egin zio- ten. Baina min handiena itsa- sontziz bidalitako liburu asko bidean galdu izanak eman zion. Edo ingelesek erasotu egin zioten itsasontziari, edo itsasontzia hondoratu egin zen; ez dago argi zer gertatu zen. Eskerrak lan orijinala soi- nean zeramana.

GARIBAIEN OBRA

Bere "Compendio Historial" delakoak arrakasta handia izan zuen, eta horrek animatu egin zuen sortze eta ikertze lane- an jarraitzeko.

Aipamen berezia merezi dute Garibaik idatzitako memoriek. Historiaren Erret Akademiak argitaratu zituen



"Compendio Historial" osatzen duten lau aleak. Arrasateko Udalak 1933. urtean erosi zituen eta udal artxibategian daude ikusgai. Ikaragarria da XVI. mendeko liburu hauen kalitatea: papera, maketazioa, idazkera, enkuadernazioa...


*Et Cee de da andia eida en çarria,
Sagar ezeeu, eta aida çonia
Akabaja, çontazio da Niha
Aççan bua çia, çarria çonia.*

*Et Laçtur era bear doçu Niha
Ayta çarria çarria çarria çarria.
Ama çarria çarria çarria çarria,
Ara bear doçu andia çarria.*

*Et Lauçi da çarria çarria çarria,
Aurçurta çarria çarria çarria çarria
Eççur dio çarria çarria çarria
Laçtur era bear doçu Niha.*

*Et çarria era andia çarria çarria çarria
Dio çarria çarria çarria çarria çarria
Eççur çarria çarria çarria çarria çarria
Eççur çarria çarria çarria çarria çarria.*

Garibaik euskaraz idatzitako bersoak.



bairen bizitza eta orduko Arrasateko bizimoduaren gaineko informazioz hornitua.

Zehazki esateko, memoriaren edizio kritikoa egin nahi du Udalak; hau da, memorieta aipatzen dena historikoki aztertu eta komentatuko duen argitalpena.

Udalak 1999. urterako prest izan nahi du liburu berria. Asmoa eta oinarriak urriaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu ziren eta astelehenean amaituko da lanen nondik norakoak azaltzeko deitu den lehiaketara aurkezteko epea.

Abenduan erabakiko da nori emango zaion lan hau gauzatzeko ardura, eta lortzen duenak, bi urteko epea izango du proiektua idazteko. Milioi eta erdi pezeta eman-gio Udalak egileari. ■

Patxi Montero

Esteban de Garibay

Garibairen arima

Esamesa ugari dago Garibairen arimaren gainera. "Garibairen arima bezala dabil" esaten zaio burua ez batean ez bestean ez duen pertsonari. Esamoldeak jatorrian, Garibairen batetik besterako bidaiatze etengabean sustartuta dago.

Quevedok itxura literarioagoa eman zion esaldiari: "Garibairen arima bezala, ez Jaungoikoak ez Deabruak nahi izan ez zutena". Garibairen arima erratua euren idatzietan aipatu dute Quevedok berak, Calderónek, Lope de Vegak edota Tirso de Molinak. Esamoldeak, literaturako mitora. Garibairen izenak inon atsedetik aurkitu ezin duen pertsona baten esanahia dauka letretan.


Esamoldeak eta honen ondorengo aldaerek itxura eta aitzakia eman dizkiote Garibairen bizitzan diren puntu ilunen multzoari. Hasteko, liburuek dutenez, bere amandre Paskualak zehatz-mehatz aurrikusi zuen Esteban txikia jaioko zen eguna eta ordua. Noiz eta non hil zen, ordea, ez dakigu ziur. 1598ko urria eta 1599ko apirila bitartean behar zuen izan, baina ez dago gehiago zehazterik. Eta non? Toledon, Madrilen, Valladoliden... ez dago garbi.

Hilotza non datzan ere, inork ez daki. San Frantzisko parrokiako hilarrian irakur daitekeenez, "Sortu eta mantentzen hainbeste lagundu zuen komentu honetako pakean hartu nahi izan zuen atsedean Esteban de Garibai eta Zamalloa jaunak...". Hartu nahi izan zuen atsedean, eta ez, hartu zuen atsedean. 60. hamarkadan San Frantziskon egindako indusketa lanetan 27 eskeleto oso aurkitu ziren, baina Garibairena tartean ote zen ez dago zehazterik.

Ikusten denez, galduta dabilen arima erratuaren mitoa elikatzeke argumenturik ez da falta.

Hau gutxi balitz, siniskeriak dienez Garibai etxea bera sorginduta ei dago. Etxearen sarrerako plakak dio, 1873. urtean erre ondoren, Pedro Biteri eta Arana jaunak (1833-1908) berreraiki eta herriari eman zion. Berriz, plakak ez du kontu honen aipurik egiten: etxea berreraiki ostean, Biterik lehengo gaua besterik ez zuen han pasatu. Sorginkeriak izututa, ez ei zen atzera etxe hartan aterbetzera ausartu.

Etxearen garuko erabiltzaileek-Gazte bulegoko arduradunek- aitortu digutenez, beraiek ez dute Garibairen arima erratuarekin inolako arazorik izan.



Garibai etxea XIX. mendean.

1854. urtean. Historialariaren bizitzaren datu ugari emateaz gain, Arrasateko garai-ko bizimodua ezagutzeko argibide asko ematen da bertan; besteak beste: hiribilduaren erreketa ondoarengoak, burdin olen garrantzia, gizartearen mailaketa, eta abar.

Asko idatzi zuen Garibai, baina gutxi argitaratu. Esku-izkribu ugarien artean, batez ere genealogiak utzi zituen: Gaztela, Leon, Oviedo, Espainia, Frantzia, Constantinopla, Ingalaterra, Flandria, Sizilia, Austria, Borgoina, Portugal eta abar luze bateko errege eta jauntxo askoren inguruak.

GARIBAIEN MEMORIAK

Bere heriotzaren laugarren mendeurrena bi urte barru beteko dela eta, Arrasateko Udaleko Kultura sailak Garibai gogora ekartzeko hainbat ekimen burutzeko asmoa du eta.

Lehenbizikoa Garibairen memoriaren argitalpen berri bat prestatzea izango da, Gari-

Maratoilaria

JOSE LUIS UGALDE

“Aurtengoa Donostiako maratoian parte hartzen dudan 12. aldia da”

— **Noiztik zabilta Donostiako Maratoia prestatzen?**

— Ekainean hasi nintzen. Aurtengoa 12. aldia denez, esperientzia handia hartu dut eta ez dut prestaketa berezirik egiten. Parte hartu dudanean hasi eta bukatu egin dut.

— **Astean zenbat aldiz entrenatzen duzu?**

— Maratoia prestatzeko egunero. Arrasatek Eskoriatzara joan-etorriak egiten ditut. Beti korrika egiten dut, gimnasioko ariketak ez.

— **Zer berezitasun dauka maratoi horrek?**

— Laua da eta etxetik gertu dago. Horretaz gain, partidetza handia egoten da eta lagun asko egiten dira. Ni emaztearekin joaten naiz, baina emazteak ez du takarradan egiten.

— **Metro zailenak?**


— 33. kilometrotik aurrera gogorra egiten da. Maratoiak 42 kilometro ditu eta sasotsu joan beharra dago bukatu nahi bada.

— **Maratoiarri begira, badaukazu helbururik?**

— Maratoian nire denbora onena 2 ordu eta 44 minutukoa da. Domekan marka hori lortzera joango naiz. Hala ere, hobetzeko ahaleginak egingo ditut.

— **Urduri jartzen zara?**

— Oso. Aurreko egunean ez dut ondo lo egiten eta lasterketa hasi arte ez naiz lasaitzen.



FUTBOLA EMAKUMEAK Lehia handiko partidua

Lagun Onak eta Mondraren artean beti egon da lehia handia. Hori dela eta, elkarren kontra jokatzen dituzten neurketak interesgarriak izaten dira. Partidua domekan, goizeko 10etan, jokatuko da.

ESKUBALOIA Aukerako partidua

Eskubaloioek Gure Auzune taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak zapatuan, arratsaldeko 7etan. Arabako taldea 10. postuan dago. Herroren taldearendako irabazteko moduko partidua izan beharko luke.

SASKIBALOIA Indarberrituta

Joan zen domekan Iturripen lortutako garaipenak morala eta konfidantza eman dizkie saskibaloitaldeko jokalariei. Zapatuan, arrasatearrek indarberrituta egingo diete aurre Bacomat taldekoei. Zapatuko partidua arratsaldeko 7.30etan jokatuko da Gasteizen.

RUGBYA Gastedi aurkaria

Arrasate Rugby taldeak multzoko liderra izango du aurrez aurre zapatuan Gasteizen. Arratsaldeko 4retan jokatuko den partidua ez da samurra izango Patxi Gorosabelen mutilentzat. Gasteiztarrak jeitsi berriak dira eta euren helburua berriro mailaz igotzea da. Arrasatek, beraz, galtzeko gutxi eta irabazteko asko dauka.

Derbia

Iritsi da egun handia. Domekan hilak 23, UDAk eta Mondrak denboraldiko lehen derbia jokatuko dute Ibarren, arratsaldeko 4.30etan. Horrelako derbietan hiru puntuak baino gehiago egoten da jokoan. Entrenatzaileei eta jokalariei galdetzerakoan, esaten dute puntuak bakarrik daudela jokoan. Denok dakigu hori ez dela egia. Puntuak, ohorea, poztasuna... Derbietako emaitzak ez dira hain samur ahazten. Mondrak irabaziz gero, mondragoetarrek hurrengo derbira arte behin eta berriro gogoratu eragingo diete atxabaltarrei emaitza, eta alderantziz. Jokalarien artean giro berezia egoten da eta harmailetan beste hainbeste.

Bi taldeak nahiko paretsu dabilta. Sailkapenean hobeto kokatuta dago Mondra, baina UDAk etxeko partiduetan itxura ona erakusten ari da. Neurketa lehiatsua izango da. Garaile nor? Hor dago kokka! Ni, atxabaltarra izanda, UDAREN koloreak daramatzat bihotzean, baina nire lana dela eta, denboraldian zehar Mondrari jarraitzen diot. Talde biak ditut gogoko baina derbietan berdinketa ez zait emaitza ona iruditzen. Futbolzaleoi golak gustatzen zaizkigu, eta irabazle bat egotea. Futbolzalea naizenez eta derbiak asko gustatzen zaizkidanez, nire iritzia emango dizuet: Ibarren UDAk irabaztea gustatuko litzaidake eta Atxabalpen Mondrak.

Itxaro zubillaga

a emaitza eta ohorea jokoan



**JESUS MARI
BARRUTIABENGOA**

Mondrako entranatzailea

— Nola planteatu behar duzu derbia?

— Ez dakit, baina baliteke 4-4-2koa ateratzea. Hori atera edo ez, bajen arabera erabakiko dut.

— UDA taldean zer azpimaratuko zenuke?

— Abiadura eta jokalarien mentalitate baikorra. Baina UDAk ez dit beldurrik ematen, hori argi utzi gura dut.

— Zelan dago Mondra?

— Baja askorekin. Dena dela, hamaikako indartsua ateratu dut partidua irabazteko.

— Emaitza?

— Irabazi, berdin zait azken minutuan penalti bati esker izaten bada.



RUBEN RUEDA

Mondrako kapitaina

— Badauka derbiak ezer berezirik?

— Bai, betiko aurkariak dira eta dena emango dugu zelaian.

— Zer giro dago aldageltan?

— Komentarioak egiten ditugu, baina giroa normala da.

— Garaipena beste batzuetan baino garrantzitsua izango da?

— Bai, batetik, hiru puntuak jokoan daudelako, eta bestetik, ohorea ere hor dago. Jokalarien artean pikeak egoten dira.

— Prima berezirik?

— Horren inguruan ez dugu berba egin. Prima normala izango da.

— Emaitza?

— 2 eta 3. Mondrarenak Leibak eta Agusek sartuko dituzte. Leibak bi eta Agusek bat.



ALBERTO PEREZ

UDAKo entranatzailea

— Zelan planteatu behar duzu derbia?

— Derbia denez, ez dut partidu normal bat balitz legez planteatuko. Eraso sistema aterako dut, lehenbailehen aurretik jartzeko.

— Mondra taldean zer azpimaratuko zenuke?

— Gaztetasuna eta jokalariek taldeko koloreak defendatzeko duten gogoia. Gainera, ondo jokatzeko dute.

— Zelan dago UDA?

— Luengo zigortuta eta Kepa Azkue lesionatuta. Gai nontzekoak jokatzeko gertu.

— Emaitza?

— Irabazi, eta gure batz bestekoa partiduko 4 gol direnez, hona hemen emaitza: 4 eta 1.



JOSEBA ARANA

UDAKo kapitaina

— Badauka derbiak ezer berezirik?

— Bai, jakina, Aretxabaletan igartzen da noiz izan behar den derbia.

— Zer giro dago aldageltan?

— Berezia. Irabazteko gose itsua dago jokalarien artean.

— Garaipena, beste batzuetan baino garrantzitsua goa?

— Hiru puntu eta zerbait gehiago da, ohorea, harrotasuna. Denoi gustatzen zaigu horrelako partidua irabaztea.

— Prima berezirik?

— Oraingo ez, baina beharbada azken orduan sarituko gaituzte zelabait.

— Emaitza?

— 3 eta 2 irabazita konformatu egingo nintzateke. Horrela, gu pozik, eta golekin jarraitzaileak ere bai.

“UDAK ez dit beldurrik ematen”

“Dena emango dugu zelaian”

“Sistema erasokorra aterako dut”

“Irabazteko gose itsua daukagu”

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Argi Ibili	7	7	0	0	49	13	14
AC Surcos	7	6	0	1	42	17	12
Pipwhis	7	6	0	1	30	17	12
Branka Taberna	7	5	1	1	28	19	11
Sokoakoak	7	5	1	1	51	16	11
Tamagotxi	7	5	0	2	26	22	10
Nuevo Taberna	7	4	1	2	30	24	9
Garaje Oscar	7	4	0	3	24	23	8
KKJauri	7	4	0	3	24	19	8
Ke Oxtias	7	2	3	2	27	16	7
Jotakabau	7	3	1	3	18	15	7
Ganbelas	7	2	1	4	16	18	5
Leya	7	2	1	4	28	29	5
Cartonajes Igamo	7	1	2	4	13	27	4
Potrosorri	7	0	2	5	12	26	2
Babajana Sexy	7	1	0	6	16	36	2
Onaniereng	7	0	1	6	11	48	1
Nacex.S	7	0	0	7	11	78	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Koka Juniors	7	5	2	0	42	20	12
Naranja Mekanika	7	6	0	1	34	21	12
Estrella taberna	7	6	0	1	30	17	12
At Celaya	7	5	1	1	29	16	11
Totem	7	4	1	2	37	11	9
Aurrea Bolie	7	4	1	2	34	22	9
Aldibi	7	3	2	2	31	21	8
Los Heredia	7	3	1	3	24	20	7
Lorategi	7	3	0	4	31	20	6
Aldapa Taberna	7	3	0	4	24	27	6
Borrock roll	7	2	2	3	21	28	6
Insert Coin	7	3	0	4	21	28	6
Txeyenex	7	2	1	4	23	27	5
Kamasutra	7	1	3	3	21	30	5
Makai	7	2	0	5	19	43	4
Etxe Mobil	7	1	1	5	16	37	3
Iluna Taberna	7	1	1	5	13	36	3
Elisabeth	7	1	0	6	18	43	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Orlando Piratas	7	6	1	0	31	11	13
Jako al rey	7	5	1	1	32	21	11
Irati STS	7	5	0	2	33	26	10
Zotz	7	5	0	2	25	14	10
DA Iriztu	7	4	2	1	40	32	10
Fraguel Gol	7	4	2	1	30	22	10
Betrayer	7	4	1	2	29	16	9
Lautherbrunen	7	4	0	3	30	29	8
Arrogoi Taberna	7	3	0	4	34	23	6
Pepelus	7	3	0	4	27	28	6
Jey holigans	7	3	0	4	25	30	6
Bukanak	7	2	1	4	22	40	5
Rotor de Bolb.	7	2	0	5	15	16	4
Epeh	7	2	0	5	16	20	4
Komando Alpagat	7	1	2	4	20	29	4
DKB	7	2	0	5	19	33	4
Ainarexia	7	2	0	6	27	35	4
Sobredosis de Claro	7	1	0	6	15	40	2

Emaitzak

A taldea

Ke Oxtias 1 - Cart. Igamo 1
 Jotakabau 4 - Potrosorri 1
 Sokoakoak 4 - Branka Taberna 6
 Babajana Sexy 2 - Leya 8
 Nuevo taberna 7 - Tamagotxi 6
 Pipwhis 5 - Garaje Oscar 1
 Onaniereng 1 - KKJauri 11
 argi Ibili 4 - Ganbelas 3
 Ac surcos 13 - Nacex.S 2

B taldea

Pepelus 3 - Leutherbrunen 5
 Jey Holigans 6 - DKB 3
 Komando alp. 5 - DA Iriztu 5
 Irati STS 2 - Fraguuel Gol 6
 Ainarexia 7 - Arrogoi taberna 1
 Jako al rey 1 - Bukanak 1
 Epeh 1 - Zotz 2
 Betrayer 2 - Rotor deBolbogrado 0
 Orlando Pir. 5 - Sobred. de Claro 2

D taldea

Estrella taberna 5 - Txeyenex 4
 Aurrera bolie 4 - At celaya 3
 Aldapa taberna 1 - Inset Copin 2
 Etxe mobil 2 - Los Heredia 11
 Koka Juniors 5 - Aldibi 5
 Totem 2 - Kamasutra 2
 Borrock Roll 2 - Iluna Taberna 2
 Naranja Mekanika 5 - Makai 3
 Lorategi 9 - Elisabeth



ASTEBUKAERERO BADAGO ZER IKUSI. Aste-bukaeran jokatuko diren partiduetatik hiru aukuratuko ditugu. Zapatuan, 1 Ietan, Sokoakoak eta AC Surcosek, puntuez gain, babajana izango dute jokoan. 12etan, berriz, Naranja Mekanika eta At Celayaren arteko partidua egongo da ikusgai. Azkenik, domeka eguerdian Estrella taberna eta Totem izango dira lehian.

Aldibi
 Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
 Tel.: 71 20 02

Hurrengo partiduak

Azaroak 22, Larunbata Zaldibar

8.50 Jotakabau - Onaniereng
 10.00 Elisabeth - koka Juniors
 11.00 Sokoakoak - AC Surcos
 12.00 Naranja Mekanika - AT Celaya
 13.00 Betrayer - DKB
 14.00 EtxeMobil - Iluna Taberna
 15.00 Rotor de bolbogrado - Arrogoi tab.
 16.00 Ganbelas - Tamagotxi
 17.00 Koma. alpagat - Orlando Piratas
 18.00 Txeyenex - Insert Coin
 19.00 Jey Holigans - Epeh

Iturripe A

11.00 argi Ibili - Potrosorri
 12.00 Aurrera Bolie - Borrock Roll
 13.00 Lautherbrunen - DA Iriztu
 14.00 Makai - Aldibi
 15.00 Sobredosis de Claro - ainarexia
 16.00 Ke oxtias - Pipwhis
 17.00 Kamasutra - Los heredia

Iturripe B


13.00 Babajana Sexy - KKJauri
 14.00 Bukanak - Fraguuel Gol
 15.00 Cartonajes Igamo - Branka Taberna
 16.00 Irati STS - Zotz
 17.00 Garaje Oscar - Leya

Azaroak 13, Igandea Zaldibar

9.50 Aldapa taberna - Lorategi
 11.00 Pepelus - Jako al rey
 12.00 estrella taberna - Totem
 13.00 Nacex. S - Nuevo tanberna

■ Francisco Javier Ruiz de Munain

HARREMAN ELKARTEKO LEHENDAKARIA



njinerutza ikastera etorri zenetik, Arrasateri lotuta dago aguraindar hau. Gaur egun Ikerlaneko komunikazio arduraduna da, baina beharbada ezagunagoa dugu Harreman elkarteko lehendakaria delako.

- 1.- Zein da zure horoskopoa? Eskorpio.
- 2.- Sinestuna zara? Pertsonengan sinesten dut.

- 3.- Animalia bihurtzekotan? Nola tratatzen ditugun ikusita, ez nau erakartzen.
- 4.- Zure akats bat/gauza on bat? Familiari denbora gutxi eskaintzea/Ezagutzen nautenek bat edo beste aurkituz gero, pozik.
- 5.- Zerk lotsarazten zaitu? Horrenbeste ume-ren sufrimenduak.
- 6.- Amets bat? Espazioan bidaiatzea.
- 7.- Zer kenduko zenuke mundutik? Intolerantzia.
- 8.- Gertakizun historiko bat? 68ko maiatza.
- 9.- Nor miresten duzu? Gandhi.
- 10.- Zeri diozu beldurra? Denak balio duela pentsatzeak asko kezkatzen nau.
- 11.- Zeozer garbatzen zaizu? Garbatzeak ez dauka zentzurik.
- 12.- Negar egin duzun azken aldia? Pena bai, baina malkorik ez zait etortzen.
- 13.- Zer falta zaio Arrasateri? Gazteentzat denborapasarako lokalak.
- 14.- Eta zuri? Denbora.
- 15.- Lanbidez aldatzekotan? Daudakanean pozik nabil.
- 16.- Arrasateko gustoko toki bat?

- Santa Barbara.
- 17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Urruti-ko herrialde batera luzerako joatea.
- 18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? Astean zehar *El Diario Vasco*.
- 19.- Gustoko janari bat? Zarba betetak.
- 20.- Liburu on bat? *Leon afrikarra*.
- 21.- Filmerik onena/txarrena? Filme gutxi ikusi dut azkenaldian.
- 22.- Musika talderik onena/txarrena? Onena *Beatles*.
- 23.- Telebistako programarik onena/txarrena? Dokumentalak/*Sorpresa, sorpresa*
- 24.- Egin dizuten oparirik politena? Patin bat errege egunean.
- 25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu? Pasioan, irakurtzen, familiarekin eta batez ere Harremanen.
- 26.- Oporretarako toki bat? Familiarekin, Benidorm.
- 27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa.
- 28.- Gomendio bat? Berriketa gutxiago eta sar gaitezen mamian.
- 29.- Zerbaitegatik emango zenuke bizia? Seme-alabengatik.
- 30.- 200 milioi irabaziz gero? *Harremani* denbora gehiago eskaini eta jakina... nire zorraz kitatuko nituzke.



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

Bazen behin... opera

Mari Errauskin opera ikusteko sarrerak agortuta

Gauerdiko kanpai-hotsak entzutearekin batera, printzearekin dantzan ari den Mari Errauskinek alde egin behar izan du arrapaladan, maitagarriaren sorginkeria desagertzeko puntuan

dago eta. Bidean kristalezko zapata galdu du eta..."

Mari Errauskin opera arrasatearra asteburuan estreinatuko da Amaia antzokian zapatu eta domekako emanaldietan.

Azkar ibili ez zaretenok, jai. Sarrerak agortuta daude. Joango zaretenontzat aurrerapen gisa eta ikusi ezin izango duzuenon kontsolamendurako, hona hemen lan honetako aurpegi nagusiak.



JOXEBI



140 ikasle antzetzokian, Arrasate Musikal orkestra, San Viator ikastolako abesbatzak... bi urteko lana.



Mari Errauskin
Amaia Zubiria
Sopranoa



Printzea
Enrique Altuna
Tenorea



Ahizpaordea
Aintzira Dalmau
Kontraltoa




Ahizpaordea
Esther Atxa
Kontraltoa



Amaordea
Mertxe Salaberri
Kontraltoa



Maitagarria
Leire Eraña



Erregearen pregoilaria
Ignacio Olaizola
Baxua



Erregea
Alvaro Beitia
Baritonoa

FELI ARENAZA, MARGOLARIA

Arabako paisaiak maiteminduta

Orain dela bederatzirte hartu zuen lehenengo aldiz pintzela eskuartean. Ordutik ez dio margotzeari utzi, eta 300 koadro baino gehiago egin ditu.

Felirendako edozer gauza da inspirazio iturri, baina gehien, Arabako paisaiak margotzea gustatzen zaio.

Gaurtik aurrera eta abenduaren 8ra arte, Harresi aretoan izango dira ikusgai 76 urteko donostiar honen koadroak. Erakusketa dela-eta ez ei dago urduri, izan ere hau ez da koadroak erakusgai jartzen dituen lehen aldia.

- Donostiar batek erakusketa ipini du Arrasaten. Zer dela eta?

- Donostian jaio nintzen eta han bizi naiz, baina nire gurasoak Arrasate eta Aretxabaletakoak ziren. Ama Altamirakoa zen eta aita Larrino auzokoa, "Elixalde" baserrikoa. Biak Donostiara joan ziren lan egitera eta han ezagutu zuten elkar.

- Orain dela bederatzirte hasi eizinen margotzen.

- Bai, jubilatuta nintzanean pintura ikastaro batean eman nuen izena. Margotzen hasi eta gustatu egin zitzaidan. Ordutik ez naiz geratu. Niretzat margotzea hobby bat da.

- Julbilatu arte ezer ez?

- Tira, eskolan margotzen genuen, eta ni nahiko abila nintzen, baina 15 urterekin utzi nuen eskola.

- Arrasatera ere etorri izan zara margotzen ikastera.

- Julio Galartarekin eta Kontxita Zarragoarekin margotu izan dut. Juliorekin izugarri ikasi dut. Batez ere kanpoko paisaiak margotzen irakatsi dit. Arabara joan izan gara, hango paisaiak asko gustatzen zaizkigu eta.



Gipuzkoako paisaiak, berriz, gogorra- goak dira, pinu asko dagoelako.

- Paisaiak dituzu inspirazio iturri?

- Bai, baina erretratuak, loreak eta itsasoarekin zerikusia duten koadroak ere margotzen ditut.

- Askotamargotu duzu. Eta saldu?

- 300 koadro baino gehiago margotu eta horietako batzuk saldu egin ditut. Horretaz gain, familiartekoei oparitzen dizkiet batzuk. Batzuetan enkarguz ere aritzen naiz.

- Margolari ona zara?

- Jendeak esaten dit nire koadroak gustatzen zaizkiola, baina ez dakit konpromenez esaten ote didaten. Margolari ona naizen edo ez, erakusketa ikustera joaten direnek esan behar dute.

- Erakusketan zer egongo da ikusgai?

- Denetik. Hogeita hamar koadro baino gehiago. Ez da lehendabiziko erakusketa izango, baina bai Arrasaten jartzen dudana estrainekoa.

aste gazte

■ LANA

• Ibarako Udalak: kultur teknikari bat. Epea: azaroak 25.

• Sestaoko Udala: kirol instalazioetako mantenimendu langile bi eta liburutegi laguntzaile bat. Epea: azaroak 27.

• Erandioko Udala: letratu aholkulari bi (idazkaritza eta hirigintzarako), kultur arloko administrari bat, dirulaguntza laguntzaile bat, bi peoi, atezain bat, kontable bat eta sanitare arloko langile bat. Epea: azaroak 27.

• Burlatako Udala: obretako zerbitziburu bat eta gizarte hezitzaile bat. Epea: azaroak 28.

• Nafarroa Iparraldeko Mankomunitatea: euskara teknikari bat. Epea: abenduak 4.

• Barakaldoko Udalak: administrari orokorreko teknikari bat, administrari laguntzaile bat, klarinete irakasle bat, graduatu sozial bat, arkitektu tekniko bat, artxibo eta biblioteketako hiru laguntzaile. Epea: EAOn argitaratu zain.

■ BEKAK

• Ekonomi ikerkuntzarako bekak, *Banco de España*ko deituta. Epea: urtarrilak 16.

■ LEHIAKETAK

• *Gaztemaniak* maketa lehiaketa. Diputazioak antolatuta. Aukeraturako abestiek CDa grabatuko da. Epea: azaroak 25.

• Ipuin lehiaketa, Azagra (Nafarroa) Udalak antolatuta. 16-35 urte bitartekoei zuzenduta, gai librea. Epea: azaroak 28.

• *Don Pedro Anitua III. enpresa ideia lehiaketa*, gazteei zuzenduta. Gasteizko Udala. Epea: abenduak 15.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

“Margolari ona naizen edo ez, erakusketa ikustera joaten direnek esan behar dute”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Oñatiko alde zaharreen 3 solairuko etxea salgai. Ortu txiki bat dauka. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko ordu batetik aurrera.

• Arrasaten pisua salgai. Tel.: 79 22 92.

• Gesalibarren egoera onean dagoen baserria salgai. 3 solairu ditu, bakoitza 200 m²koa. Tel.: 79 97 35. 14.00etatik aurrera.

• Bergaran apartamentua salgai. 40 m². Sukaldea, komuna, egongela. Guztiz jantzita. Tel.: 76 05 88.

3. Errentan emateko

• Pisua alokatzen da Arrasaten. Tel.: 76 21 70. Gaueko 8etatik aurrera.

• Arrasaten pisua alokatzen da. Nahizanez gero logelak ere alokatzen dira. Tel.: 76 21 70. Arratsaldeko 8etatik aurrera.

4. Errentan hartzeko

• Alokatzeko pisu bila nabil. Merkea eta txikia. Tel.: 79 78 65.

5. Etxe konpartituak

• Arrasaten pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 27 70. Lan orduetan. Alberto.

• San Andreseko Errebuelta, 6 - 5. B. an jendea behar da pisua osatzeko.

• Arrasaten etxea alokatzeko edo konpartitzeko prest nago. Tel.: 71 42 86. Javier.

• Logela bat alokatzen da Arrasateko erdialdean. Tel.: 79 87 59. Tere.

GARAJEAK

7. Saldu

• Erguin kalean garaje itxia salgai prezio onean. Roneoko etxeetako lehen solairuan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Kontzeziñon garajea alokatzen da. Tel.: 79 54 07.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deltu behar da iragarkia jartzeko.

23. Jaione.

• Kontzeziñon garajea salgai. Tel.: 79 23 38.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100m²ko eta bi solairuko lokala salgai. Tel.: 79 07 24.

14. Errentan emateko

• Bulegoa jartzeko egokitura dagoen lokala errentan ematen da Bolintxo ondoan (Arrasate Pasealekua). 52 m². Bi itereira ditu. Tel.: 79 02 52.

15. Errentan hartzeko

• Arrasaten lokal komertziala edo industrialia hartuko nuke alokairuan. Tel.: 79 99 82.

LANA

17. Eskaintzak

• 32 urteko emakumea bulego edo

etxeak garbitzeko gertu. Tel.: 77 00 26. Goizetik arratsaldeko 4ak arte.

• Esperientziadun neska gertu goizetan umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska orduka lan egiteko gertu. Tel.: 79 77 91.

• Bergara Au pair. Ingalaterra, Eskozia, Irlanda, Frantzia... *au pair* agentzia batek eskaini dezakeen guztia gehi beste mila lanpostutan aritzeko aukera. Tel.: 76 26 06.

• Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Miriam. Gauez.

• Emakumea gertu etxeko lanak egiri eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 51 29.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

18. Eskaerak

• Bi ume zaintzeko emakume edo neska euskalduna behar da. Tel.: 79 76 56.

• Au pair bat behar da Ingalaterra-ko hegoaldeko Exeter herrian. Tel.:

79 82 09

• Sukaldari laguntzailea behar da. Tel.: 79 20 26.

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 09 03.

19. Denetarik

• Lanak orderadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Psikologoak OHoko klase partikularrak, ikas teknikak eta laguntza eskolarra emateko gertu. Tel.: 77 17 02 edo 909 44 88 20.

• OHo eta DBHko klase partikularrak ematen dira. Tel.: 77 00 29.

• Injineritzako ikaslea DBH eta LHko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 33 39.

• Injinerutzako ikasle batek, fisika eta matematika klase partikularrak emango lituzke. BUP eta UBI mailak. Tel.: 79 71 16. Goizez eta gauez.

• Alemanierako eta portugesezako klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko ordu 1etatik aurrera.

• Titulodun neska batek DBHko 3. mailako klase partikularrak emango lituzke erdaraz. Tel.: 79 79 84. Arratsaldeko 3etatik aurrera.

• OHoko klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 98 68.

• Esperientziadun neska OHoko klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 25 09.

• Titulodun neska gertu administratzaile lanetarako. Tel.: 907 94 06 67.

21. Eskaerak

• LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematika, fisika eta kimikako klase partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 70 36 edo 79 12 95.

MOTORRA

23. Saldu

• Selex GR 1.450 fotokopiagailua sal-

gai. Tel.: 77 04 98.

• Ford Courier bat erosiko nuke edo Opel Midi batengatik aldatu. Tel.: (94) 620 36 10. Gaeuz.

• Renault 9 GTL SS-T autoa salgai. Prezio ona. Tel.: 77 00 78 edo 77 22 15. Edurne edo Iñaki.

DENETARIK

26. Saldu

• Bulegorako mahaia salgai. 78 x 158 zm. Argia dauka. Tel.: 79 08 23. Iñaki.

• Larruzko kremaileradun txaketa beltza salgai. Berri-berria. 40 tailakoa. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 79 35 47. Gaeuz. Edurne.

• Kerosenozko berogailua salgai. Tel.: 79 78 65.

• Bi mandodun Super Nintendoa salgai. 7 joku ditu. Prezio ona. Tel.: 77 10 82. Nestor.

• Bigarren eskuko trikiti txikia salgai. Piggini markakoa. Egoera onean. Tel.: 79 08 37.

• Komuneko manpara salgai. Egoera onean dago. 1.50 m. Prezioa:

12.000 pta. Tel.: 79 97 60.

• Conserban Roller karabana salgai. 4-5 lagunendako. Oso egoera onean dago. Tel.: 79 59 71.

• Yorkshire arrazako txakur kumeak salgai. Tel.: 77 04 84. Gaeuz.

• Boxer txakur kumeak salgai. Tel.: 79 92 79. Arratsaldeko Betatik aurrera.

• Oilagorretan ona den setter baten txakur kumeak salgai. Tel.: 81 22 06.

• Egoera onean dagoen logela bat eta komuneko altzariak salgai. Tel.: 79 54 07.

27. Erosi

• Lau pistadun grabagailua erosiko nuke. Tel.: 79 41 97. Koldo.

• Bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. Tel.: 939 65 34 85. Maribel.

30. Hartu

• Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko garajasetzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

• Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat

behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

• Urriaren 28an estutxe batean zeuden betaurrekoak galdu nituen Olarte kale inguruan. Tel.: 79 07 24.

• Uribarriko parrokia, Arimazuri edo Eguzki dorre inguruan erlojua galdu nuen. Tel.: 79 39 42.

• Arodun urrezko belarritakoa galdu nuen azoka inguruan azaroaren 4an. Balio sentimental handikoa da. Eskertuko da. Tel.: 79 69 50.

32. Aurkitu

• Irati taberna parean bizikleta bat aurkitu genuen. Zeurea bada, pasa zaitz bertatik.

• Peugeot auto bateko giltzak aurkitu nituen igandean Munarreko Nebraska tabernaren parean. Udaltzaingoa daude.

• Monterronen txandal fraka berri batzuk aurkitu nituen orain dela bi aste. Think Pink markakoak dira. Tel.: 79 40 15.

• Joan den igandean Leintz Gatzagako ferian emakumezkoendako antioju graduatu batzuk aurkitu nituen. Leintz

Gatzagako udaletxean daude.

35. Denetarik

• Ford Scort markako kotxea lapurtu digute. Gris argia. SS-75 84-T. Urriaren 23an desagertu zen Eskoriatzan. Tel.: 79 37 68.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Euskal heavy-rock talde bat osatzeko baxularia behar dugu. Tel.: (945) 13 67 03. Jokin.

• Arrasateko rock talde batek baterajolea behar du. Punk/Oi! estiloa. Tel.: 79 79 35. Asier.

• 26 urteko mutil homosexuala naiz eta lagun taldea osatu nahiko nuke. Animatu eta Arrasateko 59 postakutxara idatzi.

36. Deialdiak

• Udalako Arteta baserrikoek kontu korrontea zabaldu dugu sutean ondutako baserria konpontzeko. Euskadiko Kutxa: 0010045181.

ARIZMENDI TOPAKETAK

HEZKUNTZA PROIEKTU PROPIOA IZATEAK MEREZI DU

HITZALDIAK

LEKUA: **Amaia antzokia** ORDUA: **18:45etan**



GIZABIDEA
FUNDAZIOA

• Azaroaren 24a, astelehena

"Adimena, zorientasuna eta baloreak"

Hizlaria: **PEDRO HERNANDEZ**, ICEko Zuzendaria-La Lagunako Unibertsitatea (Tenerife)

• Azaroaren 26a, asteazkena

"On Jose Mariarekin solasean"

Hizlaria: **JON SARASUA**, bertsolari eta kazetaria

• Azaroaren 27a, osteguna


"Hezkuntza, kooperatiben garapen enpresarialaren oinarri"

Hizlaria: **ANTONIO CANCELO**, MCCko lehendakaria

■ Horoskopoa

- **Aries** Izarretan idatzita dago soldaduzkarik ez duzula egingo.
- **Taurus** Sekulako mozkorrarekin joango zara lanera.
- **Gemini** Galdera asko egingo dizute arazo ilun hori dela eta.
- **Cancer** Parapentea hartzen duzun bakoitzean, pinuren bat botatzen duzu.
- **Leo** Aste honetan izkina guztietan lokartuko zara.
- **Virgo** Ez zaitez Inemeko bulegotik pasa. Ez duzu ezer lortuko.
- **Libra** Publizitate agentzia batean lana eskainiko dizute.
- **Scorpio** Zorioroona zure urtebeteztian... (Kaxano dixit)
- **Sagitaris** Zaldibarreko partiduan berriro galduko duzue.
- **Capricorn** Akaso medikura joan behar duzu belarri horiek begiratzera.
- **Aquarius** Aurpegi horrekin Miss Filipinas izateko aukera izango duzu.
- **Piscis** Merezitako lasaitasuna lortuko duzu.

■ Gurutzegrama



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Alfonso, AKPko lehendakariaren abizena. 8. Gutxi irauten duena. 10. Itsasuntziaren aurrealdea. 11. Usaimenari esker eta sudurraren bitartez hartzen dugun sentsazioa. 13. Kana bateko kontsonanteak. 14. Mikroordenadoreetako sistema eragile mota. 15. (Ald.) Alde hemendik. 17. (Ald.) Oka egin. 20. Zein unetan. 21. Gehiegi.

Bertikalak 1. Diru asko duen pertsona. 2. Txakur. 3. Lau hortzeko golde-mota. 4. (Ald.) Gari aleak birrinduz lortzen den hautsa, ogia egiteko erabiltzen dena. 5. Hots. 6. Japoniako moneta-unitate nagusia. 7. Berehala bukatzen dena. 9. Ku Kux Klan. 12. Gauzak freskotan gordetzeko egokituta dagoen etxe azpiko tokia. 16. (Ald.) Bi pare. 18. Atzoko kontsonanteak. 10. Alfabetoko hamaikagarren letraren izena.

Horizontalak: 1. Donnay, 8. Iratze, 10. Branka, 11. Usain, 13. Kn, 14. Dos, 15. (Ald.) Ut, 17. (Ald.) Okatzatu, 20. Noiz, 21. Lar. **Bertikalak:** 1. Dirudun, 3. Or, 3. Nabasai, 4. (Ald.) Irin, 5. Azantz, 6. Yen, 7. Joankor, 9. KKK, 12. Soto, 16. (Ald.) Lau, 18. Tz, 19. Ka.

M
ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37

**I
L
E
A**

Ferrerias. 79 87 62

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94



Torrauzo, 9
Tel.: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI

Etxe  **Aundi**

Hotela** Jatetxea

SANTA LUZIA
egunerako
menu berezia
orkesta eta guzti!

TXINPARTA taldearen dantzaldia!

UDA-Mondra derbia Mondrasport berezian

Astelehenean, hilak 24, *Mondrasport* berezia izango da gaueko 9.30etan. Saioaren atal handi bat UDAk eta Mondrak jokatu duten derbiari eskainiko diogu. Domekan denboraldiko lehen derbia egongo da jokoan eta neurketa horretako laburpen sakona ikusi ahal izango duzue ATBn. Horretaz gain, bi protagonista izango dira zuzenean. Mondra taldetik, Beñat Apraiz arrasatearra etorriko da. UDATik, arrasatearra den baina aretxabaletan jokatzen duen Igor Bastardo. Biek derbiari buruzko iritziak emango dituzte. Iritzi hauek eta era berean domekan Ibarako futbol zelaian jasotakoak izango dituzue ikusgai. Talde bietako entrenatzaileen eta presidenteen balorazioak ere ez dira faltako.

Derbia *Mondrasport* kirol saioaren atal garrantzitsua



bihurtuko bada ere, beste kirolei asteroko errepasoa emango diegu. Eskubaloi, saskibaloi, rugby, pilota eta atletismo kontuak jorratuko ditugu bigarren zatian eta saioa bukatzeko, beti bezala, Zaldirar txapelketa.

Ainhoa Agirreazaldeg lotsa barik

Azken urteetan Agirreazaldeg beragarra gaztetxoentzako txapelketa eta beste-lako saioetan egin da eza-gun.

Asteartean, Ainhoaren zaletasun eta sentimenduak bere ahotan entzun eta eza-gutzeko aukera izango duzue ATBn, *Lotsa barik* saioan.



Ainhoa Agirreazaldeg bertsotan.

Arrasate Irratia 107.7 FM

ZAPATUA

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30 **Musika**
- 10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarriekin.
- 11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olazola eta Eusebio Iñarrarekin.
- 12:00-14:00 **Bi zoro eta zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30-11:00 **Goizoro**
- 14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena
21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiaekin.

Asteartea

22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginitako magazina.

Osteguna

22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaïttin Allenderekin.

Ostirala

22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 22	ASTELEHENA, 24	ASTEARTEA, 25	ASTEAZKENA, 26	OSTEGUNA, 27	OSTIRALA, 28
Astelehena zehar eskainitako programa interesgarrien errepikapena	13:30 Astebete (Errepik.)	13:30 Mondrasport . (Errepik.)	13:30 Burua astinduz . (Errepik.)	13:30 Tertulixan . (Errepik.)	13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)
13:30 Kukaratxa Motel	20:00/20:30/21:00 Berriak . Patxi Montero.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	19:15 Kukaratxa Motel . Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak .
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala eta Uda-Mondra derbia sakonean.	21:30 Lotsa barik . Maier Uranga eta Suar Aizpurrekin. Gonbidatua: Ainhoa Agirreazaldeg bertsolaria.	21:00 Tertulixan . Beñardo Kortabariak eta bere gonbidatuek azken egunetan notizia izan diren gaiak komentatu dituzte.	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete . Patxi Montero. Astelehena zehar jasotako berrien laburpena eta gai interesgarrien sakontzea.
14:45 Burua astinduz . Gonbidatu bereziak: M-Clan.				21:30 Kukaratxa Motel .	



Zarugaldeko koadrilak” urtero bidaia-txo bat egiteko ohitura zuen. 1976an, adibidez, Baionara joan ziren. Urte horretan egin-dako bidaia esanguratsua izan zen, lehenengo aldiz, lau emakume ere eurekin joan ziren eta.

Behin Baionara heltzean, Joakin Etxabe arrasatearraren jatetxean bazkaldu zuten eta ostean Angelura joan ziren, “Gautxon” tabernara. Hantxe atera zuten argazkia, bertan zeuden arrasatear batzuekin batera. Ilunkaran, berriz, batzuk Donibane Lohitzunera joan ziren pelikula porno bat

ikustera.

Argazkian ageri direnak: Faustino Uribarren “Oloste”, Maximo Errasti, Joakin Etxabe, Joxe Arana, Txomin Iturbe, Txomin Llodio, Joxe Manuel Pagoaga “Peixoto”, Joxe Etxagibel, Esteban Arana, Joxe “Zahatza” eta Paulo Uribarren. Makurtuta: Kar-

melo Zubillaga, Maximo Arana eta Joxe Ezkurra “Kakutx”.

Argazkian batzuk bakarrik ageri diren arren, autobusa bete-beteta joan ei zen.

Urtea: 1976.

Argazkia: Joakin Iria.

Informazioa: Joakin Iria.

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70



Zuri Garbiketak

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIAMATZA

• ARTEA •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tel.: 77 10 95
ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

Ipek Denda
Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE
Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA
Rioja, 17 ▪ Tel.: (945) 25 88 92 ▪ GASTEIZ

*Zure ongizatea
babezteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.



Htze
mobiliario y
decoracion

- PROIEKTUAK
- BARNE-DISEINUA
- OBRAK



*Zeure estiloari egokituta,
altzari modernoen saila.*

Ferrerias, 17 (Alde Zabarra) • Tel. eta faxa: 79 03 17 • ARRASATE

Bihotzak
gida zaitzala.



Berria
Opel
Corsa

zure bizitzako motorea

Zure bizitzako motorea martxan jarri da.
Motore belaunaldi berri bat. Potentzia gehiagoz. Kontsumo gutxiagoz.
Eta txasis berri bat. Gehiago gozatzeko. Segurtasun handiagoz.

Jarriozu motore berri bat zure bizitzari, eta eraman zaitzala

OPEL
ALEMANIAR INJENERUTZA ZURU

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3. (Escatu pabilioia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTSEZIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.